

# URTEKO PLANA

2009-10



## **AURKIBIDEA**

### **1.- LAN TALDEAK, TAILERRAK ETA FORMAZIOA.**

#### **1 -1.- Lan taldeak:**

- Kalitatea gestionatzeko sistema.
- Hizkuntza Normalkuntza Plana.
- IKT./ Informatika
- Liburutegia.
- Agenda 21
- Eleanitz goiztiarra Europa barnean
- Pedagogi Batzordea
- Zuzendaritza taldea.

#### **1-2.- Tailerrak:**

- Buztin tailerra..

#### **1.3.- Formazioa**

### **2. IRAKASKUNTZA JARDUEREN EGITARUA**

- 2-1.- Irakasleen kokapena eta tutoretzen banaketa.
- 2-2.- Irakasleen ordutegiak. Irakasleen ordu osagarriak.
- 2-3.- Irakasleak taldekatzeko irizpideak.
- 2-4.- Egutegia.
- 2-5.- Gurasoekiko harremanak.
- 2-6.- Gela amankomunen eta errekurtsu didaktikoen erabilera.
- 2-7.- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen antolaketa eta atzerriko ikasleei emandako laguntzak.
- 2-8.- Atzerriko ikasleekin egindako ekintzak.
- 2-9.- Ebaluazioa:
  - Irakasleen ebaluazioa.
  - Ikastetxeko lan taldeen ebaluazioa.

### **3.-EKINTZAK**

#### **3-1.- Irteera didaktikoak-txangoak eta ekintza osagarriak.**

#### **3-2.- Eskolaz kanpoko ekintzak:**

- Multikirola.

#### **3-3.- Zerbitzuak:**

- Jangela.
- Garraioa.
- Elurte Plana.

### **4.-KUDEAKETA PROGRAMA**

- 4-1.- Ikastetxeko laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa
- 4-2.- Ordezkaritza Organo Goreneko partaideak.
- 4-3.- Gestio orria:
  - Ikastetxeko aurrekontuak.
  - Jangelako aurrekontuak.
  - Eskolaz kanpoko ekintzen aurrekontuak

## **1- LAN TALDEAK, TAILERRAK ETA FORMAIZIOA**

### **1.1.- Lan Taldeak:**

#### **KALITATEA GESTIONATZEKO SISTEMA**

Lan talde honek, irakasleen artean era adostu eta sistematiko batean lan egitera bultzatzen gaitu, ikastetxeko proiektuak era arrakastatuenean garatzeko.

#### **Helburuak:**

- 2005-06 ikasturtean ezarritako Kalitatea Gestionatzeko Sistemarekin aurrera jarraitzea eguneroko lanean. .
- Irakasle goa animatu eta aholkatzea.
- Ikastetxeko Plan Estrategikoa errebisatu eta berria egin.

#### **Jarraituko diren pausoak :**

- Kalitate mintegikideak irakasleengandik gertu egongo dira beharrezko laguntzak emateko.
- Sistemak eskatzen dituen kontrol-plan guztiak egunean eraman.

#### **Mintegiaren maiztasuna:**

Ostegunero 2 orduz bilduko da taldea. martxan jarritako lanak aurrera eramateko.

#### **Partaideak:**

Idoia Muguruza, Jesus M<sup>a</sup> Barrenetxea, Marivi Iriondo, Lurdes Olaizola eta Lurdes Perea.

### **EUSKARA MINTEGIA**

Ikastolak, orain arteko bere lan ildoetan markatuta duen 1. puntua: "euskara eta euskal kulturaren inguruan egiten diren ekintzak baloratu, hobetu eta potentziatu", helburua landuko du talde honek

#### **Helburuak:**

- Euskararen erabileraren mantenua sustatu ikastetxeko esparru ezberdinetan; batez ere, jolastokian eta jolastorduan.

#### **Hau bultzatzeko...**

- Hiruhilabetean behin euskararen erabilera bultzatuko duen ekintza bat antolatu, gutxienez.
- Hiruhilabetean aste beteko jolas gidatuak zuzendu; gutxienez.
- Hiruhilabetero euskararen erabileraren neurketa bat egin.
- Lehen Hezkuntzako 3. zikloan Bertsolaritza ikastaroa bultzatu.
- Garaiangaraiko proposamenak jaso eta egokitze jo ezker, aurrera eraman.

#### **Jarraitutako diren pausoak:**

- Neurketak egiteko datak zehaztu, esparruak eta neurtzaileak izendatu eta ondorioak atera.
- Gipuzkoako Bertsolari elkartearekin harremanak mantendu.
- Udaleko Biziberritzeko planetako bileretara joan.

## Mintegiaren maiztasuna:

Astean behin: asteazkeneko ordu bat.

## Partaideak:

Itziar Oñederra, Mikel Elkorro, Lurdes Perea, eta Jesus Mari Barrenetxea

## **EUSKARAZ BIZI**

### 2009-2010 ikasturterako ekintzen plangintza proposamena:

		Mendi Topaketak. Lasarteko Landaberri Ikastolakoekin adosten da data.
Azaroa	2→7	Gaztainerre Kanpaina.
		San Andres Azoka
		2010ko egutegirako marrazki lehiaketa.
Abendua	3	Euskararen eguna
		Gabon Zorion Txartela. Marrazki lehiaketa.
Otsaila		Ihauteri marrazki kanpaina
Otsaila	1-5	Ihauteri kanpaina
Ekainak	5	Kirola Euskaraz Bizi

## **IKT. / INFORMATIKA**

lazko ikasturtean IKT Hobekuntza Planari heldu ondoren, aurten jarraipena ematea tokatzen zaigu. Gure ikaslego eta irakaslegoaren kompetentzia hobetzeari jarraipena emango diogu, horretarako hainbat lan ildo euskarri gisa erabiliko ditugularik.

Gure Plan Estrategikoak dioenez: "Teknologia berriak erabiliz, irakasleak ondo formatu eta ikasle trebeak hezitzeagatik."

Hona hemen 2009-10 ikasturterako hasierako helburuak

- **Mintegia** mantendu. Asteazkeneko bilduko gara. Haur hezkuntzako irakasle erreferenteekin ere ahalik eta gehienetan egongo gara
- **Pelutxe** proiektuarekin jarraitu. HH eta LH ko 1 eta 2. mailakoek eramango dute aurrera.
- **Peru Abarka** aldizkari elektronikoa urte osorako zabaldu. Gela guztiek eta interesa duten mintegiekin parte hartu ahal izango dute
- **Mekanografia** 4. mailetan, Aitorren begiradapean.
- **Inbentarioa** eguneratu.
- **Proiektoreak** instalatu (ahal bada 4 gelatan). Bosgarren mailetara datorren materiala kontatu gabe
- **Azterketak** burutu.
- **Inika** baloratu.
- **Formakuntza** (power point, harbel digitalak, proiektorearen erabilpena, korreo elektronikoa...) Irakaslegoaren beharrak kontutan hartu.
- Gurasoekin harremanak **korreoaren** bitartez indartu.
- **Ordenagailuak euskeratu**
- **Ikasturte bukaeran auditoretza pasatuko digute.**
- **MOGEL.ORG** web orria eguneratuta izaten arduratu
- **Lantaldeko partaideak** Aitor Amutxastegi Amaia Abanzabalegi, Lurdes Perea, Ane Martiartu, Anajo Zubillaga, Mikel Elkorro.
- Web orriaren arduraduna: Edurne Urizar

## **LIBURUTEGIA**

Gure mintegiak egiten duen lanarekin ikastetxearen bi ildo hauetan izango du zerikusi handiena :

- Alde batetik Euskara eta euskal kulturaren inguruan egiten diren ekintzak baloratu, hobetu eta potentziatu.
- Bestetik Iturburuko Ikastetxea eskolaz kanpoko orduetan ikasleei bere zerbitzua eskeiniko dionez ,Zerbitzuen hobekuntzetan emango dugu beste pauso bat.

### **HELBURUAK:**

- Ikasleen irakurketaren zaletasuna indartzeko Liburutegiaren erabilera bultzatu.
- Erabiltzaileak liburutegiko formakuntzan trebatu.
- Material gehiagoz hornitu liburutegia.(Aurten materiala erosterakoan DVDei emango diegu lehentasuna)
- Abies programarekin jarraitu : katalogazioa, maileguak, mintegiko partaideen formakuntza ,...
- Irakurketa dinamizatzeko kanpaina zehatz batzuk antolatu. (Eskolaz kanpoko orduak aprobetxatuko ditugu ekintzak bultzatzeko.)

### **JARRAITUKO DIREN PAUSOAK:**

Liburutegia irekita izango diren txandak antolatuko dira :

- Eskola orduetan.
- Goizean 8:30
- Jolastorduan .
- Bazkal orduko Txanda
- Arratsaldeko Txandak.

Saioen antolaketa erabaki eta martxan jarri:

- Erabiltzaileen formakuntza eta informazioa
- Maileguak
- Irakurketa saioak
- Ipuin kontalariak eta Irudigileak
- Kanpainak
- Zine emanaldiak
- Mahai jolasak
- Denporapasen txokoa....

**Mintegiko Partaideak** : Nerea Aranzeta, Idoia Jainaga, Pili Zubizarreta, Virginia Narbaiza( arduraduna)

## **AGENDA 21**

Gure plan estrategikoan markatzen dugu “Ingurumenarekiko konpromezuagatik eta inguruak eskaintzen diguna aprobeztatzen dakien eskola izan nahi dugu”, helburu honek eramaten gaitu urtero-urtero Eskola Agenda 21 proiektuarekin aurrera jarraitzera.

### **Helburua:**

- Gure ikasleengan arazoak konpontzeko gaitasuna garatu eta ikasleak herritar partehartzaileak eta natur ondasun babesleak izaten ohitu.

### **Egingo ditugun ekintzak:**

- Ingurumen Batzordea (14 ikasle, 3 irakasle eta zuzendaria) 4 alditan bilduko dira: 3 aldiz proposamenak bideratzeko eta 4.a ikasturtean zehar egindako lana ebaluatzeko.
- Kontsumo gaiarekin eskoletako plenoan parte hartu eta gero erabakiak zentrorra zabaldu (plenoan ikastolako ikasle kopuru batek soilik parte hartuko du).
- Haur Hezkuntzan bi ekintza, bat Sansaburun, beste bat Argatxan.  
Kontsumo jasangarria edo arduratsuekin sentsibilizatzeko:  
Azaroaren erdialdean, Ingurumen batzordekoek sentsibilizatzeko pegatinak gelaka banatuko dituzte eta Agenda 21 zer den eta zertan datza azalduko dute.
- 1go hiruhilabetea: Sensibilizazio kanpaina:  
Umeei: Ipuin Topaketa: Gabonak eta kontsumoa.  
Gurasoei: Eskutitza  
Irakasleei: Zeidak pasatutako materiala irakasle gelan zabaldu.
- Iturburuko aretoan bildu  
.Urtarrilean, ikasturtean egin beharrekoak azaltzeko  
.Maiatza, Plenoa burutu eta egindakoak baloratzeko.
- Gelako birziklatzeko papera kontrolatzen.
- Gelaka birziklatzeko papera kudeatzen.
- Gelaka txoko berdean 2. hiruhilabetea gastatzen diren berragomak erregistratzen.
- Sortutako materiala mailaka kurrikulumean txertatuko dugu.

**Mintegiaren maiztasuna** : Hamabostean behin ordu bete, ostegunetan: 11:30etik, 12:30 era. . Honez gain, mintegiko partaide bakoitzak denbora bat izango du martxan jarritako lanak aurrera eramateko.

**Partaideak:** Marifran Olalde, Lurdes Perea, Edurne Urizar eta Cristina Salas.

## **ELEANITZ GOIZTIARRA EUROPA BARNEAN.**

**Etorkizun hurbilean**, Eibarko herrian “Euskara indartuz gain, hizkuntza desberdinak irakasteagatik” eta “Teknologia berriak erabiliz, irakasleak ondo formatu eta ikasle trebeak hezitzeagatik” erreferente izango den ikastetxea lortu nahi dugu. Horretarako proiektu hau beharrezkoa dela uste dugu. Honetaz gain, Europa barnean gaudenez, Europako zenbait eskoletako lan

modu eta proiektuak ezagutzea eta geureak ezagutu ditzaten ere ezinbestekoa da.

**Helburuak:**

- Proiektuaren filosofia ulertzea eta duen teoria bereganatzea.
- Teoria kontutan izanik, unitate bakoitza nola landu behar den eguneratzea.
- Material berrien erabilpen erakargarriena ezagutzea.
- Mintegietan beste eskoletako irakasleekin proiektua eta geletako gorabeherak komentatu, aztertu eta errekurtsio berriez jabetzea.
- IKTen erabilera ikasi eta ikasgelan erabiltzea.
- IKTak erabiliz Europako eskoletako ikaslegoarekin harremanak sortu eta bultzatzea.

**Jarraitzen diren pausoak:**

-Haur hezkuntzan : « Ready for a story » rako eguneratze saiora joatea Artigalekin.

-Lehen zikloan :“Hocus+Lotus” eko bilerak ikastetxe ezberdinetan gauzatuko dira ikasturtean zehar. Bilera hauetan irakaslearen materiala, gelakoa eta ikasleena nola erabili etekinik hoberenak lortzeko azalduko zaigu modu eguneratuan.

-Bigarren eta hirugarren zikloetan :IKTak nola txertatu gure proiektuan erakutsiko zaigu mintegietan, ahalik eta gehien erabiltzeko asmoz(Web orrialdea, blogak, Cdromak...).

-Hirugarren zikloan :Europar eskoletako hezkuntza sistema eta lan moduak ezagutu eta geurea kanporatzeko aukerak eta tresnak aztertu (Etwinning, MyEurope, Eurydice).

-5. mailan, ikasle bakoitzak “netbook” a izango dutenez, hauen erabilera internet “wi fi” eta arbela digitalekin lotuta irakatsiko zaigu asteroko mintegietan ikasturte osoan zehar.

**Partaideak :**

Euken Arana, Amaia Abanzabalegi eta Ane Martiartu.

**Baliabideak :**

Eleanitz English, European Commission, Ikastolen elkarte, Internet, J.A .Mogel Ikastolako web orrialdea

**PEDAGOGI BATZORDEA**

Talde honetan ikastolak bere planeko 6. lan ildoan markatutakoa landuko da: “Gure arteko komunikazioa eta harremanak landu, koordinazioa bultzatu, helburu konkretu eta oinarritzko berdintsuak markatu eta adostu, lanketa sistematizatuz, hitz eginez eta konpromisoak betez.”

**Helburuak:**

- Ikastetxeko ikasketa-proiektua prestatzen laguntzea, eta horren inguruko proposamenak irakasle-taldeari aurkeztea.

- Etapa edo zikloko tutoretza-funtzioak koordinatzea.
- Etapa edo zikloko irakaskuntza koordinatzea, ikasketa-proiektuarekin bat joan dadin.
- Jarduera osagarriak koordinatzea.
- Irakasleen inizatibak aztertu eta bultzatu.
- Zuzendaritza eta irakasleen arteko lotura gauzatu.
- Zuzendaritzari bere erabakietan lagundu.

**Jarraituko diren pausoak:**

- Zikloko koordinadoreekin astean behin bildu informazioa banatu eta ikastetxearen dinamika aztertu.
- Koordinadoreen arteko bilerak aurrera eraman.
- Koordinadoreak jasotzen duten informazioa bideratu beraien zikloetan gutxienez hilean behin zikloko bilera ginez.
- Irakasle berriei ikastetxeko ohiturak erakutsi.

**Mintegiaren maiztasuna:**

- -Astean behin (astelehen arratsaldeetan 2 ordu)

**Partaideak:**

- Begoña Gorostidi, Mikel Elgoro, Aitor Amutxastegi, Ana Iriondo, Virginia Narbaiza eta Lurdes Perea.

**ZUZENDARITZA TALDEA**

• **Helburuak:**

- Kurtsoen eskola ematea planifikatzea, karguak eta eginkizunak eta irakasleek eman beharreko klaseak esleituz eta irakasleen eta ikasgela eta espazioen ordutegiak elaboratzea.
- Ikastetxeko baliabide desberdinak antolatu.
- Administrazio eta beste zenbait erakunderekin harremanak eta gestioak aurrera eraman.
- Eguneroko jardueretan sortu daitezkeen premiak bideratu.
- Elkarlana bultzatu.

• **Jarraituko ditugun pausoak:**

- Ikastaldeak eta irakasleriaren plantila antolatu.
- Irakasleriaren ardura eta karguak banatu.
- Gelen kokapena ezarri.
- Ordutegi orokorra egin
- Zaintzen ordutegi-koadroa eta ordezkapenena egin.
- Beharrezko dokumentuak kudeatu.
- Planifikazioaren ebaluaketa egin eta hobekuntzak proposatu.
- Ikastetxeak dituen premiak bideratu dagozkien erakundeetara.

• **Partaideak:**

Ana Iriondo (idazkaria), Virginia Narbaiza (ikasketa burua) , Lurdes Perea (zuzendaria).

## 1.2.-Tailerrak:

### BUZTIN TAILERRA

#### Helburuak:

- Buztinarekin kontaktu atsegina eta emankorra piztu.
- Ukimenaren kontrola landu.
- Sormenaren adierazpenari atea ireki.

#### Jarraituko diren pausoak:

##### 1. zikloan :

- Ebakiduraz eta inzioz azulejoan marrazkia eratu.
- Azulejoa osatu zatiak ipiniz.
- Ziklo hau lehen hiruhilabetean arituko da.

##### 2. zikloan:

- Txurroen bidez era desberdinetako ontziak egin.
- Ziklo hau bigarren hiruhilabetean arituko da.

##### 3. zikloan:

- 5. mailan: Txotxo bat eman ez maskara bat egin.
- 6. mailan: Buztin errefraktarioa eskainiz, lan abstraktu bat burutu.
- Ziklo hau hirugarren hiruhilabetean arituko da.

#### Denboralizazioa:

Astean bi orduko saioak eskeintzen zaizkio buztin tailerrari. Saio hauek astearte goizetan ematen dira 9:00etatik, 11:00etara.

- **Arduraduna:**

Jesús Belaustegi.

## 1.3.- Formazioa

- 5. mailako tutoreek, 5. mailako PT, 5. mailako inglesekoko irakasleak eta IKT arduradunak, estero bi orduko formazioa jasoko dute Berritzegunean, 5. mailara datozen ordenagailu, arbel digital eta kainoiak direla eta.
- GARATU ikastaroak hainbat irakaslek.

## 2.- IRAKASKUNTZA JARDUEREN EGITARUA

IRAKASLEGOAREN DATUTEGIA 09-10

### HAUR HEZKUNTZA

ARGATXA		SANSABURU	
Izaskun Maza-Irkusne Garat	2.A	Ana Jose Zubillaga (IKT)	2.C
Gentzane Milikua	2.B	Ana Peñalba – Alazne Astarloa	2.D
Elena Eguren	3.A	Ainhoa Cerros	3.C
Lurdes Olaizola ( Kalitate)	4.A	Eduarne Arrizabalaga	3.D
Eduarne Zenarruzabeitia	5.D	Ainara Alberdi	4.C
		Miren Egidazu	4.D
		M <sup>a</sup> Luisa Zufiaurre	5.A
		Nerea Maguregi	5.B

<b>KOORDINATZAILEA:</b> Ana Iriondo	<b>KOORDINATZAILEA:</b> Beatriz Arregi	
<b>IRAKASLE EZ TUTOREAK</b>		
Olga Hormaetxea	Lurdes Ardanza	
<b>INGELESA:</b> Ane Martiartu (IKT)	<b>MUSIKA:</b> Natalia Atienza	
<b>JANGELA ARDURADUNA:</b> Beatriz Arregi		

### LEHEN HEZKUNTZA

TUTOREAK		ESPEZIFIKOAK	
Jesús M <sup>a</sup> Barrenetxea (HNP,Kalita)	1.A	Aitor Amutxastegi(Multiki, Koordinadore- Ikt)	Soinketa
Begoña Gorostidi ( Koordin.)	1.B	Euken Arana	Ingelesa
Arantza San Martin	1.C	Amaia Abanzabalegi (IKT)	Ingelesa
Itziar Oñederra ( HNP )	2.A	Mikel Elkoru(Koordinatzaile-HNP-IKT)	Soinketa
Idoia Jainaga (liburutegi)	2.B	Jon Andoni Gutierrez	Kristau ikasbide
Rita Lertxundi	3.A	Natalia Atienza	Musika
Pili Zubizarreta (Liburutegi)	3.B	<b>IRAKASLE EZ TUTOREAK</b>	
Inma Berasaluze	4.A	Marifran Olalde ( Agenda 21,AKA)	
Idoia Muguruza (Kalitatea)	4.B	Jesús Belaustegi ( Plastika tailerra)	
M <sup>a</sup> Luisa Garcia ( Agenda 21)	4.C	Joseba Cabezon – Aitziber Guiomar Arrieta	
		Juani Carballo ( HIPI )	
Cristina Salas ( Agenda 21)	5.A	<b>LAGUNTZA TALDEA</b>	
Marivi Iriondo (kalitate )	5.B	Jabi Txurruka (PT)	
Txebis Gorritxategi	6.A	Nerea Aranzeta (PT) (liburutegia)	
Edurne Urizar ( Agenda 21-Web)	6.B	Jose M <sup>a</sup> Bernedo (kontsultore)	
		Noemí Diez (Pt)	
		Olatz Iriarte (ALE)	
<b>JANGELA ARDURADUNA :</b> Beatriz Arregi			
<b>ZUZENDARITZA</b>			
<b>ZUZENDARIA :</b> Lurdes Perea			
<b>IKASKETA BURUA :</b> Virginia Narbaiza			
<b>IDAZKARIA:</b> Ana Iriondo ( koordinatzaile)			

## **2.2- IKASLEEN ORDUTEGIAK eta IRAKASLEEN ORDU OSAGARRIAK.**

### **Haur hezkuntza (Sansaburu eta Argatxa):**

Goizeko lanaldia: Irailaren 9etik 19ra eta ekainaren 15tik 19ra.

9:30etik 12:30era.

Lanaldi osoa: Goizean 9:30etik 12:30era

Arratsaldez 14:30etik 16:30era.

### **Lehen hezkuntza (Iturburu):**

- 1. zikloa:** Goizeko lanaldia: Irailaren 9etik 19ra eta ekainaren 15tik 19ra ---  
. 9:30etik 13:00era.

Lanaldi osoa: Goizean: 9:30etik 13:00ra.

Arratsaldean: 14:20tik 16:20ra.

Ziklo honetako ikasleek goizean 9:00etan hartzen dute autobusa Iturburura igotzeko eta arratsaldeko 16:30ean jaisteko.

**2. eta 3. zikloak:** Goizeko lanaldia: Irailaren 9etik 19ra eta ekainaren 15tik 19ra.

9:00etatik 12:30era

Lanaldi osoa: Goizean: 9:00etatik 12:30era.

Arratsaldean: 13:50etik 15:50era.

Ziklo honetako ikasleak goizean 8:30ean hartzen dute autobusa Iturburura igotzeko eta arratsaldeko 16:00etan jaisteko.

Gure ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasleek 5 eskola ordu eta erdi dituzte egunero.

### **IRAKASLEEN ORDU OSAGARRIAK**

Ikasleen orduetatik aparte, horrela banatzen dira irakasleen ordu osagarriak:

#### **Haur hezkuntza (Sansaburu-Argatxa)**

Astelehena 4:30-6:30---Zentroko bilerak-Mailako programazioak

Asteartea 4:30-5:30---Guraso elkarrizketak-Bakarkako nahiz taldeko lanak

Asteazkena 4:30-6:30---Irakasleen prestakuntza-Maila edo zikloko bilerak

#### **Lehen hezkuntza (Iturburu)**

Astelehenetan 1:30-----Mintegiak-Programazioak-Maila edo zikloko bilerak

Asteazkenetan 1:00----Zentroko bilerak-Bakarkako nahiz taldeko lana- Guraso elkarrizketak

### **2.3. IKASLEAK TALDEKATZEKO IRIZPIDEAK**

Ikastolan ikasleak taldeka banatzeko orduan erabiltzen ditugun irizpideak honako hauek dira:

Matrikula berrien taldekatzea, irizpide hauek kontuan izanda egiten dugu:

- Helbidea.
- Neska-mutil kopurua.

Gure ikastetxea 2 edo 3 lerrokoa da, beraz, aukera ematen du, beharra ikusten dugunean, taldekatze berriak egiteko.

Taldekatze berriak egin behar ditugunean, honako irizpide hauek erabiltzen ditugu:

- Helbidea eta auzokidetasuna.
- Neska-mutilen arteko parekidetasuna
- Gela orekatuak; ikasle kopuru parekideak.
- Aurkeztutako kapazitateen arabera talde orekatuak; haur helduenak eta "umeenak" nahasi eta ez denak alde batera.
- Aurreko taldean duten harreman afektiboa kontuan izanik.
- Irakasleen euskara maila.

## 2.4.-ESKOLA EGUTEGIA 2009-10

### IRAILA

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

### URRIA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

### AZAROA

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

### ABENDUA

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

### URTARRILA

A	A	A	O	O	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

### OTSAILA

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

### MARTXOA

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

### APIRILA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

### MAIATZA

A	A	A	O	O	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

### EKAINA

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				



JAIK  
FIESTAS



4 ORDU  
POR LA MAÑANA



5 ORDU  
TODO EL DIA



IKASTURTE HASIERA  
ETA BUKAERA  
INICIO Y FINAL DE  
CURSO

## **2.5. GURASOEKIKO HARREMANAK**

Haurren heziketa, familia eta eskolaren arteko elkarlanean egin beharreko eginkizuna da. J.A. Mogelek bere planean markatuta du gurasoei haurraren heziketan laguntzeko nahia. Elkarlan hau era honetara gauzatuko da ikasturte honetan:

Elkarlan hau aurrera eramateko tutore bakoitzak ikasturtean zehar 2 aldiz bilduko ditu bere gelako guraso guztiak, gelako bileran, ziklo bukaeretan. Ziklo erdian, tutore aldaketarik ez badago, ekaineko bilera ez da derrigorrez egingo. Bilera hauetan irakasleak ikasturtearen dinamika, taldearen ezaugarriak, arlo desberdinetan landuko dena, eta abar aipatuko ditu. Bestalde, leku aproposa da gurasoek beraien kezka komentatzeko. Ziklo bakoitzaren hasieran, ingelerako irakasleak bere arloaren metodología eta edukiak azaltzen dizkio guraso taldeari.

Banakako elkarrizketak ere egiten ditugu, hauek irakasleak edo gurasoak konbokatu ditzakete eta gutxienez 2 egingo dira ikasturtean zehar.

Gurasoek bere seme-alabaren informe idatziak jasoko dituzte dokumentu honetako 2-9 Ebaluazio atalean aipatzen den egunetarako.

Gela bakoitzean guraso arduradun bat izendatuta egongo da, taldean sortu daitezkeen arazoak bideratzea izango da bere lana.

Zuzendaritzak 2 aldiz deituko du O.O.G.. Bertan Urteko Plana, Memoria eta ikastolako dinamikan sortzen diren gaiak aipatzen dira.

Urtean behin Guraso Elkarteak deitzen duen Asanbladan parte hartzen dugu zentroan lantzen diren proiektuak esplikatuz.

Bestalde, irakasleak eta zuzendaritza irekita gaude sortu daitezkeen edozein kezka, arazo eta abarrez hitz egiteko.

## **2.6.- GELA AMANKOMUNEN ETA ERREKURTSO DIDAKTIKOEN ERABILERA.**

### **Haur Hezkuntzan:**

- Sansaburun psikomotrizitate gela dugu. Talde bakoitza astean behin pasatzen da bertatik eta 2 orduko saioa egiten dute.
- Argatxan ez dugu leku aproposik psikomotrizitatea egiteko eta ikasleak ondoan dagoen polikiroldegira igotzen dira psikomotrizitate saioak bertan egitera.
- Haur Hezkuntzako 2 ikastetxeetan ingelera gela daukagu eta ikasleak 4 urtetatik aurrera erabiltzen dute astean 2 ordu.

### **Iturburun:**

- Musika gela: Talde bakoitzak ordu-beteko saioa izaten du bertan astean behin.

- Ingleseko gelak: 2 gela ditugu Iturburun eta ikasle guztiak pasatzen dira beraietatik. 1. ziklokoak 2 ordu astean, 2. ziklokoak 2 ordu eta erdi eta 3. ziklokoak 3 ordu.
- Plastika gela: Ikasle guztiak pasatzen dira bertatik buztin tailerra egitea tokatzen zaienean, eta plastika orduetan irakasleak horrela nahi badu.
- Informatika gelak: 2 gela ordenadorez hornituta, Talde guztiek, gutxienez, astean behin ordu-beteko saioa egiten dute bertan.
- Gimnasioa: Eguraldiaren arabera barruko edo kanpoko espazioak erabiltzen dituzte ikasleek. Astean 2 saio egiten dituzte.
- Bideo gela: Programazioak eskatzen duen neurrian erabiltzen da maila bakoitzean.
- Laborategia: 3. zikloko ikasleek erabiltzen dute, gaia bertan lantzeko denean.
- Liburutegia: Eskola orduetan maila guztiek bere ordutegia izango dute liburutegia erabiltzeko. DVD eta CDak erabiltzeko tokia ere da. Horrez gain, eskola orduz kanpo ere zabalik egongo da.
- Harrera gela irekia: Bertan egiten dituzte hainbat ekintza ikastetxera etortzen diren etorkinek

## **2.7.- HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN ANTOLAKETA**

Ezinbesteko da irakasle-tutoreak laguntza taldekoekin, 6. lan ildoan agertzen den koordinazioa markatu, adostu eta betetzea.

### **Laguntza taldeak markatutako helburuak:**

- J.A. Mogel Ikastolako irakasleak ikas prozesuan zein eskolako bizitzan oztopoak dituen edota aurkitu ditzakeen ikaslea lehenbailehen detektatu, laguntza taldeari aditzera eman eta hauek, ikastolak dituen baliabideak antolatzea.
- Gure 3. lan ildoari jarraituz, ikasturte honetan jarraituko dugu ahalegin bereziak egiten Haur Hezkuntzan, prebentziorako azpiegitura bat antolatzeko.

### **Helburuak lortzeko pausoak:**

Bi atal daude jarraitu beharrekoak:

- **AURRAZ DETEKTATUTAKO IKASLEEN JARRAIPENA:**  
1-Ikasturte hasieran (iraila-urria) laguntza taldeko partaideak, HH eta L.H.ko tutoreekin egon:  
A)Aurrez detektatutako ikasleei buruz elkarren berri eman eta planifikazioa zehaztu.  
2-Ikasturtean zehar (abendua/urtarrila – martxoa) planifikatutakoa ebaluatu eta hurrengo pausoak adostu (berdin jarraitu edo aldaketak markatu).  
3-Ikasturte bukaeran (ekaina) planifikatutakoa ebaluatu eta hurrengo ikasturterako prebisioak zehaztu.
- **DETEKZIO BERRIAK:**

1.-Kasu hauetan tutoreak laguntza taldeko behaketa eskatuko du. Horretarako LAGUNTZA ESKAERA ORRIA bete eta kontsultoreari pasatuko dio.

2-Laguntza taldeak behaketa eta datu bilketa egingo du. Azterketak egin ondoren, eta kasuaren arabera, ondorengo pausoak, bere jarraipenarekin, har daitezke:

- a- Laguntza taldetik jarraipena ikasturtean zehar.
- b- Laguntza zuzena ( PT,ALE, apoioa) eman.
- c- Pautak, orientabideak ( tutorearentzat gelan jarraitzeko edota gurasoentzat).
- d- Berritzegunera bideratu:
  - Diagnostikoa eginDiagnostikoaren arabera:
  - \* Berritzeguneko laguntza jaso ( fisioa, hezitzailea)
  - Kanpoko laguntza ( Osakidetza, Gabinete psikologikoa, psikomotrizitatea....).

### ***Aurrera begira aldaketak***

Ikasturte honetan zehar Berritzeguneko kontsultore mintegain, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen detekzio eta jarraipena buruzko prozesoa landu behar dugu.

Momentuz ez dakigu, kontsultore mintegirik egongo den, mintegi asko kendu baitira 5. mailako inmatika kurtsoa dela eta.

Berritzeguneko prozesu honek zerikusi du gure tutoretza prozesuaren puntu batzuekin, Hezkuntza Premia Bereziak ikutzen diturenarkin konkretuki, beraz, gure tutoretza prozesuan aldaketak ekar ditzake:

Gai honen azterketarako pausoak:

- Gure prozesua erreparatu.
- Berritzeguneko prozesua aztertu
- Prozesu biak ezkondu
- Ikastolako tutoretza prozesua (HIPIri dagokiona) berrantolatu.
- Tutoretza prozesua onartu ( zuzendaritza, kalitate batzordea, klaustroa)

## **2.8.- ATZERRIKO IKASLEEKIN EGINDAKO EKINTZAK**

**Helburuak:**

- Ikaslearen integrazio orekatua lortu, irakasle eta ikaskideekin harreman egokia izan, beti ere besteak errespetatuz
- Maila akademikoa garatzen lagundu.
- Euskararekiko jarrera positiboa landu, gure hizkuntza eta kultura erakutsiz.
- Udaletxeak bultzatzen dituen ekintzetara bideratu.

**Egingo diren ekintzak:**

- Eguneroko errutinak poliki-poliki landu: esamoldeak, elkarrizketak, arauak,...
- Tutorearekin koordinatu beharrezkoa duen laguntzak emateko.
- Ikastetxean dauden baliabideak aztertu ikaslearentzako egokitzeko.
- Irekita egongo da arlo desberdinetako irakasleekin lanerako beharrezkoa duten informazioa elkartrukatzeko.

### **Denboralizazioa.**

Koordinazio bileretan markatuko dugu ikasle bakoitzak behar duen denbora bere helburuak lortzeko. Hiruhilabetean behin gutxienez bilduko gara ikasle bakoitzaren martxa ebaluatzeko.

Haur Hezkuntzan ere, ikasleek izango dute HIPIaren presentzia. jarraipena eta laguntza zuzena.

### **Baliabideak:**

Etorkinen irakasle arduraduna(HIPI) Eibarko Berritzeguneko mintegietara joaten da formazio saioetara. Mintegi hauen maiztasuna gutxi gora-behera hilerokoa izango da.

Irakasle honek udaletxean hiruhilabetean behin koordinazio bilerak egiten ditu.

## **2-9.- EBALUAZIOA**

- **Ikasleen ebaluazioa.**

Haur Hezkuntzan: Ebaluazio jarraia egiten zaie ikasleei eta hau 2 alditan adierazten da informeetan. Informe hauek otsailaren 19 an eta ekainaren 22an banatuko zaizkie gurasoei.

2 urteko ikasleen ezaugarriak kontuan izanda, informe idatzi bakarra banatzen zaie gurasoei, ekainaren 19an.

Lehen Hezkuntzan: Etapa honetan ere ebaluazio jarraia dugu oinarria, unitate didaktiko bakoitzaren amaieran ebaluazio froga batzuk pasatzen zaizkie ikasleei betiere adinari egokitutako frogak dira. Ondoren informe idatziak egiten dira eta hauek ondorengo datetan banatzen zaizkie gurasoei:

1. hiruhilabetean: Abenduaren 22ean.
2. hiruhilabetean: Martxoaren 26an.
3. hiruhilabetean: Ekainaren 22an.

- **Ebaluazio diagnostikoa.**

08-09 ikasturtean, Ikastetxearen Oinarrizko Konpetentzien Ebaluazioa egiteko, 4.mailako ikasleei frogak pasatu zitzaizkien konpetentzia hauek neurtzeko: matematika, hizkuntza komunikazioa (euskara eta gaztelera) eta zientzia, teknologia eta osasun kultura.

09-10 ikasturte honetan, emaitzak datozenean, Ikastetxeko Txostena eta Hobekuntza Plana egingo dira. Banakako emaitzak familiei igorriko zaizkie. Aurten ere, 4.mailako ikasleei pasatuko zaie froga, eta neurtuko diren konpetentziak izango dira: matematika, hizkuntza komunikazioa (euskara eta gaztelera) eta ez dakigun laugarren bat.

- **Ikastetxeko lan taldeen ebaluazioa:**

Kalitatea Gestionatzeko Sistemari adierazita dugun bezala Urteko Plan honi ebaluazio bat egingo zaio urtean.

Ebaluazioa maiztzean egingo dugu. Lan talde guztiek beraien lan erritmoaren ebaluazioa egingo dute.

### **3.-EKINTZAK**

Datorren urtean, 2010ean, betetzen dira 50 urte J.A.Mogel Ikastola sortu zenetik, beraz, 2009-10 ikasturte honetan hasiko gara ospatzen 50. urteurrena; hortarako hainbat ekintza antolatuko dira eta honek suposatuko du, agian, aurreikusita ditugun ekintzetan aldaketaren bat.

### 3.1.- 2009-10 HH.EKINTZAK

	3 urtekoak	4 urtekoak	5 urtekoak
URRIA		<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoko etxeak ikusi eta aztertu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Beste ikastola bisitatu, hurbilen dagoen postontzira joan</li> </ul>
AZAROA	<ul style="list-style-type: none"> <li>AGENDA 21eko sensibilizazio kanpaina</li> <li>SAN ANDRES AZOKA</li> <li>Hostoak biltzera joan</li> <li>GAZTAINERRE</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>AGENDA 21eko sensibilizazio kanpaina</li> <li>SAN ANDRES AZOKA</li> <li>Hostoak biltzera joan</li> <li>GAZTAINERRE</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>AGENDA 21eko sensibilizazio kanpaina</li> <li>SAN ANDRES AZOKA</li> <li>Mendi buelta, hostoak bildu</li> <li>GAZTAINERRE</li> </ul>
ABENDUA	<ul style="list-style-type: none"> <li>EUSKERAREN EGUNA</li> <li>GABONETAKO JAIALDIA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>EUSKERAREN EGUNA</li> <li>Portalean ikusi Zeramika Eskolako ikasleen Jaiotza eta Olentzerori idatzitako gutuna eraman</li> <li>GABONETAKO JAIALDIA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>EUSKERAREN EGUNA</li> <li>Portalean ikusi Zeramika Eskolako ikasleen Jaiotza eta Olentzerori idatzitako gutuna eraman</li> <li>GABONETAKO JAIALDIA</li> </ul>
OTSAILA	<ul style="list-style-type: none"> <li>SAN BLAS EGUNA</li> <li>SANTA AGEDA</li> <li>INAUTERIAK</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>SAN BLAS EGUNA</li> <li>SANTA AGEDA</li> <li>INAUTERIAK</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>SAN BLAS EGUNA</li> <li>SANTA AGEDA</li> <li>INAUTERIAK</li> </ul>
MARTXOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoko dendak ikusi</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kalean lanbide ezberdinak behatu.</li> <li>Auzoko dendak ikusi eta bereiztu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udaletxea bisitatu</li> <li>Kalera joan trafiko seinaleak ikustera, bereiztera....</li> <li>Liburutegia bisitatu</li> </ul>
APIRILA		<ul style="list-style-type: none"> <li>Baserría, basoa bisitatu (Oñati)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>AQUARIUM - Donostia</li> </ul>
MAIATZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>DEBARA trenez</li> <li>Kalea behatu</li> <li>OLINPIADA TXIKIA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udaberria gaiarekin mendi buelta txikia.</li> <li>DEBARA trenez</li> <li>Okindegia bisitatu</li> <li>OLINPIADA TXIKIA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>DEBARA trenez.</li> <li>Iturburura bazkaltzera.</li> <li>OLINPIADA TXIKIA</li> </ul>
EKAINA	<ul style="list-style-type: none"> <li>TXANGOIA : GALDONARA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>TXANGOIA: GALDONARA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Marrazki eta zeramika eskolakoek egindako lanaren erakusketa</li> <li>TXANGOIA : GALDONARA</li> </ul>

## 2009-10 LH -- EKINTZAK

	1.MAILA	2.MAILA	3.MAILA	4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
<b>IRAILA</b>		<b>IRTEERA:</b> Arotz-Enea				
<b>URRIA</b>	<b>BUZTINA:</b> 1A (6-7) 1B (20-21)		<b>IRTEERA:</b> Auzoak ezagutu	<b>IGERIKETA:</b> 4 A(5-16) <b>IRTEERA :</b> Lastur 4 B (15), 4C (22), 4D (29)		<b>EKINTZA:</b> Udal liburutegia 7an <b>IRTEERA:</b> Arrikruz (22)
<b>AZAROA</b>	<b>BUZTINA:</b> 1C (3-4)  <b>GAZTAINERRE KANPAINA</b> ( 2tik 7ra)  <b>EKINTZA: SAN ANDRES AZOKA</b>	<b>IGERIKETA:</b> 2 A- 2B (16-27) <b>BUZTINA:2 (17-18)</b> <b>GAZTAINERRE KANPAINA</b> ( 2tik 7ra)  <b>EKINTZA: SAN ANDRES AZOKA</b>	<b>KONTSUMO TAILERRAK :</b> 9tik-13ra  <b>GAZTAINERRE KANPAINA</b> ( 2tik 7ra)  <b>EKINTZA: SAN ANDRES AZOKA</b>	<b>KONTSUMO TAILERRAK :</b> 9tik-13ra <b>IRTEERA:</b> Bailara ezagutzen  <b>GAZTAINERRE KANPAINA</b> ( 2tik 7ra)  <b>EKINTZA: SAN ANDRES AZOKA</b>	<b>IRTEERA:</b> Planetarium 4an <b>KONTSUMO TAILERRAK :</b> 9tik-13ra  <b>GAZTAINERRE KANPAINA</b> ( 2tik 7ra)  <b>EKINTZA: SAN ANDRES AZOKA</b>	<b>IRTEERA:</b> Lurraska (3-4)  <b>KONTSUMO TAILERRAK :</b> 9tik-13ra <b>GAZTAINERRE KANPAINA</b> ( 2tik 7ra)  <b>EKINTZA: SAN ANDRES AZOKA</b>
<b>ABENDUA</b>	<b>EUSKARAREN EGUNA:</b> 3an <b>IGERIKETA:</b> 1A –1 B (1-16) <b>LEHIAKETAK:</b> 2010 egutegirako Gabon Zorion Txar. <b>EKINTZA:</b> JAIALDIA	<b>EUSKARAREN EGUNA:</b> 3an  <b>BUZTINA:</b> 2B (2-4) <b>LEHIAKETAK:</b> 2010 egutegirako Gabon Zorion Txar  <b>EKINTZA: JAIALDIA</b>	<b>EUSKARAREN EGUNA:</b> 3an  <b>LEHIAKETAK:</b> 2010 egutegirako Gabon Zorion Txar  <b>EKINTZA: JAIALDIA</b>	<b>EUSKARAREN EGUNA:</b> 3an  <b>LEHIAKETAK:</b> 2010 egutegirako Gabon Zorion Txar <b>EKINTZA:</b> JAIALDIA	<b>EUSKARAREN EGUNA:</b> 3an  <b>LEHIAKETAK:</b> 2010 egutegirako Gabon Zorion Txar  <b>EKINTZA: JAIALDIA</b>	<b>EUSKARAREN EGUNA:</b> 3an <b>LEHIAKETAK:</b> 2010 egutegirako Gabon Zorion Txar  <b>EKINTZA: JAIALDIA</b>



	1.MAILA	2.MAILA	3.MAILA	4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
<b>URTARRILA</b>	<b>AGENDA 21:</b> Aretoko ekintza	<b>AGENDA 21:</b> Aretoko ekintza	<b>AGENDA 21:</b> Aretoko ekintza	<b>XAKE:</b> 18-29 ra <b>AGENDA 21: Aretoko ekintza</b>	<b>IRTEERA:</b> <b>ARTZAINZA:</b> 5 A 20an 5 B 27an <b>AGENDA 21:</b> <b>Aretoko ekintza</b>	<b>AGENDA 21: Aretoko ekintza</b>
<b>OTSAILA</b>	<b>IGERIKETA:</b> 1 C 24 tik mar 9  <b>INAUTERIAK:</b> -Kanpaina - Kalejira- jaialdia  Marrazki Lehiaketa	<b>IRTEERA:</b> Bilbo –Garraio (data zehaztu gabe) <b>INAUTERIAK:</b> Kanpaina-Kalejira- jaialdia  Marrazki Lehiaketa	<b>XAKE:</b> 15 tik 26ra  <b>INAUTERIAK:</b> Kanpaina-Kalejira- jaialdia  Marrazki Lehiaketa	<b>INAUTERIAK:</b> Kanpaina-Kalejira- jaialdia  Marrazki Lehiaketa	<b>INAUTERIAK:</b> Kanpaina-Kalejira- jaialdia  Marrazki Lehiaketa	<b>INAUTERIAK:</b> -Kanpaina-Kalejira- jaialdia  Marrazki Lehiaketa
<b>MARTXOA</b>	<b>IRTEERA:</b> OIASO (Data zehaztu gabe)  <b>LEHIAKETA:</b> Ipurterre	<b>LEHIAKETA:</b> Ipurterre	<b>IGERIKETA:</b> 3 A -3 B (10 tik 24ra)  <b>LEHIAKETA:</b> Ipurterre	<b>LEHIAKETA:</b> Ipurterre	<b>LEHIAKETA:</b> Ipurterre	<b>IRTEERA:</b> MUTRIKU Arrantza 6 A 16an 6B 23an  <b>LEHIAKETA:</b> Ipurterre



	1.MAILA	2.MAILA	3.MAILA	4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
<b>APIRILA</b>			<b>IRTEERA:</b> Lastur 3 A 14an 3 B 21an			
<b>MAIATZA</b>				<b>IGERIKETA : 4 B-4 C ( 24tik Eka. 4ra)</b>  <b>IRTEERA:</b> SASTARRAIN 25-26	<b>EMANALDIA:</b> Bertsolaritza	<b>EMANALDIA:</b> Bertsolaritza
<b>EKAINA</b>	<b>KIROLA EUSKARAZ BIZI</b> 5ean <b>TXANGO.</b> Zehaztu gabe  <b>IRTEERA:</b> ARRATE	<b>KIROLA EUSKARAZ BIZI</b> 5ean <b>TXANGO.</b> Zehaztu gabe  <b>IRTEERA:</b> ARRATE	<b>KIROLA EUSKARAZ BIZI</b> 5ean <b>TXANGO.</b> Zehaztu gabe <b>IRTEERA:</b> ARRATE	<b>KIROLA EUSKARAZ BIZI</b> 5ean <b>TXANGO.</b> Zehaztu gabe  <b>IRTEERA:</b> ARRATE	<b>KIROLA EUSKARAZ BIZI</b> 5ean <b>TXANGO.</b> Zehaztu gabe  <b>IRTEERA:</b> ARRATE	<b>KIROLA EUSKARAZ BIZI</b> 5ean <b>TXANGO.</b> Zehaztu gabe  <b>IRTEERA:</b> ARRATE

### **3-2 ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK**

Plan estrategikoan azaltzen den 4. lan ildoakin lanean jarraituz aurten eskolaz kanpo kirola .

- Multikirola

Eibarko ikastetxeek 2009-10 ikasturterako eskola kirolak iazko plangintza berdina ( 2.urtea )jarraituko du..

Honek ezaugarri hauek izango ditu:

- Ikasleek, **urrian hasita eta maiatza bukatu arte, astean zehar bi egunetan** kirol desberdinetan trebatuak (eskubaloia, aeróbica, gimnasia ritmikoa, futbola, rugbya, atletismoa, esku pilota,...) izango dira. **Saio hauek monitore espezializatuak (gorputz hezkuntzan lizenziatuak, gorputz hezkuntzeko irakasleak)** aurrera eramango lituzkete.
- Larunbatetan, orain arte bezala, txapelketak izango dira. Bertan klub desberdinak: S.D. Eibar, J.D.Arrate, Eibar R.T.,... entrenatzaileak eta epaileak jarriko lituzkete. Astean zeharreko monitoreak kordinazio lana eta ekintza ongi burutzearen ardura izango lukete.
- Guzti honen antolakuntzak, kontuan izan hau dena aurrera eramateko monitoreak kontratatuak izango direla, kosto bat dakar. Hau ordaintzeko **Foru Aldundiak aurrekontuaren 1/3a , Kirol Udal Patronatoak 1/3a eta ikasleek beste 1/3a ordainduko dute, hau da ikasle bakoitzak 65 euro ( 2€igoera edukiko du ) urteko.**

Plangintza honek hiru helburu nagusi ditu:

1. Ikasleei kalitatatezko multikirola eskeintzea.
2. Euskeraren erabilera garatzea.
3. Multikirol integratzaile baten apostua egin, non neskak eta mutilak tratu eta aukera berdinak izan ditzaten kirola egiteko orduan.

#### **Benjamín maila ( 3. eta 4. maila )**

Taldeko kirolak :

- Futbola
- Eskubaloia
- Rugbya.

Bakarkako Kirolak:

- Judoa
- Esku Pilota
- Patinaia
- Atletismoa
- Waterpolo

#### **Alebin maila (5. eta 6. maila)**

Taldeko kirolak:

- Futbola
- Eskubaloia
- Rugbya

Bakarkako kirolak:

- Judoa
- Esku Pilota
- Patinaia
- Atletismoa
- Waterpolo

. Mailaka izena eman duten ikasle kopurua.

3.maila: 33 - 3talde ( 14N – 19M ).

4.maila: 43 - 3talde ( 19N – 24M ).

5.maila: 43 - 3talde ( 20N – 23M ).

6.maila: 33 - 3talde ( 22N – 12M ).

**GUZTIRA: 153 – 12 talde ( 75N – 78M ).**

Arduraduna: Aitor Amutxastegi

- Mendi Irteerak

. Klub Deportiboko laguntzarekin , guraso talde bat sortu zen. Hauek izango dira Mendi Irteeren arduradunak aurtengo kurtsoan.

## **JANGELA**

Zerbitzu hau irailaren 9an jarri zen martxan eta ekainaren 22ra arte egongo da irekita.

**HAUR HEZKUNTZA:**

Azken urteetan jangelaren erabilera asko handitu da, gero eta guraso gehiagok eskatzen dute zerbitzu honen erabilera.

“Haur hezkuntzako jangeletan lekua erreserbatuta izango dute astean 4 edo 5 egunetan bazkaltzen dutenek, hau da, ohiko bazkaltiarrek.”

Egun solteetan bazkaldu nahi duenak aurrez jangela arduradunari telefonoz deitu beharko dio. Arduradunak egun horretan tokia izango duen ala ez argituko dio, jangela beteta egotea suertatu daiteke eta.

Jangela arduraduna: *Beatriz Arregi*

Asteazken eta ostiraletan Iturburun egongo da.

Astelehen eta ostegunetan Sansaburun egongo da.

Asteartetan Argatxan egongo da.

Ikusita Haur hezkuntzan dugun bazkaltiar kopurua, jangeletan 2 txandatan bazkaltzen dute ikasleek.

Haur Hezkuntzako jangeletan janaria Auzolagun enpresatik prestatuta dator.

Sansaburuko jangelak 60 plaza ditu:

Ohiko bazkaltiarren kopurua: - 11 ikasle 2 urtekoak

- 109 ikasle 3, 4 eta 5 urtekoak

Langile kopurua:

2 langile oficcean eta 9 monitore

Argatxako jangelak 36 plaza ditu:

Ohiko bazkaltiarren kopurua: 11 ikasle (2 urtekoak)

48 ikasle ( 3, 4 eta 5 urtekoak).

Langile kopurua :

Langile bat oficcean eta 6 monitore

## ITURBURU:

Egunero 327 ikaslek eta 33 pertsona helduk (irakasle eta langile) bazkaltzen dute Iturburuko jangelan.

Sukaldari eta oficceko langileen kopurua : 5 langile.

Zaintzaileen kopurua: 11 langile.

Jangela honetan 2 txanda egiten dira:

1. txanda: 12:30ean 3., 4., 5. eta 6. mailakoek bazkaltzen dute.
2. txanda: 13:00ean 1. eta 2. mailakoek bazkaltzen dute.

Iturburura *Auzolagun* enpresak ekartzen ditu elikagaiak, eta bazkaria Iturburuko sukaldean prestatzen da.

### Menuaren kostua:

HAUR HEZKUNTZA		
	Eguneko kuota	Hileko kuota
Haur Hezkuntzako ohiko bazkaltiarra (5 egunekoa)/.	3,60 €	63 €
Haur Hezkuntzako ohiko bazkaltiarra (4 egunekoa)/.	3,60 €	49 €
Ohiko ez dena/	4,20 €	

ITURBURU		
	Eguneko kuota	Hileko kuota
Ohiko bazkaltiar garraiatuak/	2,40 €	44 €

### GARRAIOA

#### HAUR HEZKUNTZA :

Delegaritzak eskeinitako zerbitzua aprobetxatuz, Sansaburutik urrutien bizi diren 3,4 eta 5 urteko haurrek autobusa erabiliko dute (35 toki bete arte).

#### LEHEN HEZKUNTZA:

Iturburura igotzeko 2 txanda ditugu:

1. txandan 3., 4., 5. eta 6. mailakoak igotzen dira 3 autobusetan:

1. **autobusa-** Azitain-Urkizu-Errebal- Iturburu
2. **autobusa-** Untzaga -Iturburu. ( bi buelta )
3. **autobusa-** Amaña-Kantoi- Iturburu.

2. txandan: 1. eta 2., mailakoak igotzen dira 2 autobusetan:

1. **autobusa-** Azitain- Urkizu-Errebal- Iturburu.
2. **autobusa-** Untzaga -Iturburu

### 3.autobusa- Amaña- Kantoi - Iturburu.

#### ELURTE PLANA

Urtero bezala, ondorengo plan hau prestatu dugu elurra egin eta autobusak Iturburura igo ezinik gelditzen diren egunetarako. Plan hau aurrera eramateko Mogel Isasi ikastetxearen zuzendariza eta klaustroaren ezinbesteko laguntzarekin kontaktzen dugu.

Beraz elurragatik autobusak Iturburura igo ezinean geratuko balira jarraitu beharko ditugun pautak hauek dira:

- **Goizean** autobus **geltokira** joan.
- Autobus **zaintzaileak** esango digu Iturburura igoko garen ala ez.
- Ezetza balitz, MOGEL ISASIra joateko betiko geltokian hartuko dute autobusa.
- **Aurrez tutoreari** izena emandako ikasleak, **eguardian ogitartekoa** jaten geratu daitezke. Besteak etxera joango dira. Autobusik ez dago eguardian.
- **Arratsaldean, autobus zerbitzua egongo da behar dutenentzat.**

Taldeen kokapena hau izango da:

Maila guztiak ----- MOGEL ISASI
---------------------------------

Klase orduketa denondako berdina izango da:

- **Goizez:** 9etatik 12:30etara
- **Arratsaldez:** 14:30 tatik 16:30 tara

#### 4.- KUDEAKETA PROGRAMA

##### 4.1.-IKASTETXEKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA

###### **Helburua:**

Izaera orokorreko prebentzio-estrategia ezartzea, ikastetxeko jarduerak, arautuko dituena.

Eraginkortasun handiena lortzea Laneko Segurtasun, Higiene eta Osasunari dagokionez, arriskuak kontrolatu eta txikiagotzeko.

###### **Arduraduna: Jesus Belaustegi**

###### **Egingo diren ekintzak:**

Iturburuko ebakuazio plana egin eta ebakuazioa gauzatu

Sansaburuko “ “ “ “ “ “

Argatzako “ “ “ “ “ “

Bat-bateko istripuen aurreko prozedura, antolatuta bezala gauzatzea.

## **4.2-ORDEZKARI ORGANO GORENEKO PARTAIDEAK**

### **GURASOAK**

Ana Aranberri  
José Andrés Ekiza  
Nerea Gallastegi  
Enrike Gisasola  
Leire Maiora  
Luis Rodríguez  
Daniel Salazar  
Mireia Baroja  
Lorea Lezea  
Belen Ginea  
Jon Egiguren Osa  
Idoia Eguren  
Ainhoa Amorrosta  
Iñaki Gerrikagoitia  
Mireia Ugarteburu  
\*Luis Alberdi

\* Mogel Isasiko ordezkariak --- botorik gabe

### **ORDEZKOAK**

Virginia Ulazia  
Andoni Zamakola

### **PERTSONAL EZ IRAKASLEA:**

Maite Garai

### **ZUZENDARITZA**

Perea Belaustegi Lurdes  
Narbaiza Salas Virginia  
Iriondo Olazábal Ana (Idazkaria, botorik gabe)

### **IRAKASLEAK**

Aitor Amutxastegi  
Lurdes Ardanza  
Edurne Arrizabalaga  
Jesus Belaustegi  
Ane Martiartu  
M<sup>a</sup> Luisa Zufiaurre  
Gentzane Milikua  
EdurneZenarruzabeitia  
Marifran Olalde  
Beatriz Arregi  
Itziar Oñederra (ordezkoa)  
Edurne Urizar (ordezkoa)  
\* Arrate Gutierrez

### **UDALA**

Jesús Rementeria

### 4-3.- GESTIO ORRIA

<b>ONTZEPTUA</b>	<b>URREK.</b>	<b>GAUZATUTA</b>		
Altzarien konponketa	1500,00	0,00		iazkoa
Propaganda	200,00	0,00		iazkoa
Matrikulazio kanpaina	1600,00	1224,36		berria
Gestioa	520,00	125,37		laz gauzatutaa
Mat. Desegink. Iturburu	6346,00	5673,54		lazkoa +%2
Mat. Desegink. Sansaburu	4863,00	2967,56		lazkoa +%2
Beste materiala	1100,00	127,62		iazkoa
Mat. Desegink. Argatxa	3409,00	1718,66		lazkoa +%2
Agenda 21	575,00	154,33		
Jaialdiak	1132,00	129,35		laz gauzatutaa
Kirol materiala	360,00	71,25		lazkoa +%2
Botikiña	234,00	77,88		laz gauzatutaa
Informatika Iturburu	2500,00	2101,57		iazkoa
Papera, sobreak eta boletinak	2700,00	2112,02		iazkoa
Fotokopia H.H.	1000,00	702,78		iazkoa
Fotokopia Iturburu	2000,00	792,53		iazkoa
Bulego materiala	400,00	208,98		iazkoa
Liburutegia H.H.	1000,00	88,90		iazkoa
Liburutegia Iturburu	1735,00	864,92		laz gauzatutaa
Aldizkari Harpidetza	450,00	375,24		iazkoa
Garbiketa materiala	2200,00	2076,36		iazkoa
Telefonoa	4825,00	3888,57		laz gauzatutaa
Posta	1000,00	367,57		iazkoa
Porteak	40,00	0,00		iazkoa
Ikastaroak	1400,00	1351,00		lazko erdia
Kilometrajea	600,00	178,45		lazko erdia
Psikopedagogiko Zerbitzuak	200,00	185,97		laz gauzatuta
Ikastola aldizkaria	2428,00	2422,79		lazkoa +%2
Irteera Didaktikoak	9770,00	8523,12		laz gauzat +%2
Transportea (Bus)	32000,00	31429,00		laz gauzat+%2
Euskaraz Bizi	488,00	61,04		iazkoa
Olinpiada-San Andres	4088,00	4087,10		iazkoa
Ekintza Osagarriak	1045,00	1045,00		lazko erdia
Kalitate Proiektoa	2000,00	326,80		Urteko zatia
Multikirola	12823,08	10823,08		5 hilebete
Ekipamendua	6956,24	2109,65		
Bertsolaritza	1387,84	1387,84		
Testuliburuak	29538,00	29538,00		
<b>DENERA ZENTROA</b>	<b>146413,16</b>	<b>119318,20</b>		
<i>Jangelako Hornidurak</i>	2000,00	1606,14		Subentziao arabera
Gas(a)	2000,00	1630,53		“
Jangelatako konponketak	2241,00	1097,33		“
<b>DENERA JANGfuntzion.gastua</b>	<b>6241,00</b>	<b>4334,00</b>		
<b>ZENTROA+JANGELA</b>	<b>152654,16</b>	<b>123652,20</b>		

		AURREKONT	GAUZATUTAKOA	
10	Aurreko gerakinak	16827,29	16827,29	
4E	Kta.Kte.ko interes.	1593,07	1593,07	2 kontuenak
3K	Udala irteerak	4200,00	00,00	
3K	Udala busa	21000,00	20110,65	
3K	Udala Tno.a 2009	1500,00	00,00	
3K	Udala tno.a 2008	1478,46	1478,46	
2A	Eusko J Funtzion.	18205,00	18205,00	
2B	Eusko J.Ekipamen	17596,59	17596,59	
2F	Testuliburuentzako laguntza	21463,00	21463,00	
4A	Aldizkari iragarki	1735,00	1665,00	
4A	Aldizkaria, Mogel Isasi	00,00	00,00	
4A	Guraso Elkarte	18120,00	00,00	604 haur x 30€
4A	Olinpiada-eta S.And.	5176,35	5176,35	
2T	IKE	00,00	00,00	pendiente
3A	Agenda 21 (2007)	575,00	575,00	
3A	Agenda 21 (2008)	611,80	00,00	%20
2T	Formakuntza	360,00	00,00	%20
2T	Berrikuntza	204,00	00,00	%20
4A	Multikirola kuotak	4780,00	4810,00	151haur x 31€ ekainerarte
3F	Multikirola Polikiroldegitik	00,00	00,00	Joan-etorriak
4H	Testuliburuak Kuotak	8414,00	8414,00	
4A	Bertsolaritza	00,00	00,00	pendiente
3F	Foru Aldundia (multikirolak)	2868,24	2868,24	
	<b>ZENTROA</b>	<b>146707,80</b>	<b>120782,65</b>	
	<i>Eusko J.Funtzionamendua</i>	6241,00	6241,00	
	<i>Guraso Elkartatik/extr</i>			
	<b>ZENTROA+JANGELA</b>	<b>152948,80</b>	<b>127023,65</b>	

## JANGELAKO AURREKONTUA (2. kontu korrontetik)

**IRTEERAK (Jangelakoak, elikagaiak)**

<b>ELIKAGAIK- auzolagun</b>	<b>aurrekusita</b>	<b>gauzatutakoa</b>		
<b>Ihazko abendua</b>	31945,33	<b>31945,33</b>		
<b>Urtarrila-ekaina</b>	191506,16	260726,12 228780,79	ekaina	
<b>DENERA</b>	<b>338973,39</b>	260726,12		

**SARRERAK**

	<i>Aurreko gerakinak</i>	9342,32	9342,32	
4B	Kuotak	180665,23	120256,50	
4B	<i>Bekak</i>	45586,62	45586,62	
4B	<i>Bekak- Kevin Alvear</i>	363,55	363,55	
4B	<i>atzerapenak</i>	1640,60	1640,60	2008koak
2D	<i>Eusko J.tik Jangelako SUBENTZIOAK</i>	110717,39	110717,39	ekainerarte
	<b>DENERA</b>	<b>348315,71</b>	<b>287906,98</b>	